

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Diru-laguntza izenduna ematea Laudio Ikastola ikastetxeko funtzionamendurako eta mantentze-lanetarako. 2018 urtea**

2018ko abenduaren 18 egunean, Laudio Udaleko alkate-udalburuak 2772 dekretua ebatzi du, 2018 urterako Laudio Ikastolari izendun diru-laguntza ematea onartu duena.

Ebatzi egin da 54.484,00 euro emango zaizkiela ikastetxeko funtzionamendurako eta mantentze-lanetarako. Funtzionamenduko edo mantentze-lanetarako gastutzat hartuko dira langile irakasleen gastu arruntak, betiere, beste erakunde publikoek diruz laguntzen ez badituzte, eta garbitze-lanetako langileen gastuak.

Laudio, 2019ko urtarrilaren 24a

*Alkate-udalburua*  
**JON IÑAKI URKIXO ORUETA**